



Burujabetzen herria eraikitzen



ITSASO LEKUONA ETA ANDER LARRETxea 2-3

«Korrontearen aurka doa Hernani Burujabe, egungo eredu individualistaren kontrakoa proposatzen dugu»



OIHANA ARIZTEGI - HERRILUR 4

«Helburua da elikagaiak Hernanin ekoitzi, eraldatu, banatu eta kontsumitzea»



MIREN ARANGUREN ETXARTE - ELTZEOKA 5

«Zaintza eskubide bat izatea nahi dugu, dauzkagun beharretara egokitzen den eredu bat sortuz»



ENHERKOM 6

«Energia berriztagarrien instalazio partekatutak sortu eta sare bat osatzeko lanean gabiltza»



ALEX LOPEZ - EKHILUR 7

«Udalaren ekarpena jaitzita diru gehiago mugituko dugu aurtan»



IXIAR MINER, IÑAKI GURRUTXAGA ETA ESTEBAN GARMENDIA - SAGARRETA 7

«Interesatzen zaigu herritarren kontzientzia piztea»



TXARO UNZILLA ETA GORKA NAVARRO - ETXEGURA 8

«Etxebizitzaren arazoa transbertsala da eta eskuhartze integrala behar da»



IBON TXOPERENA ETA BEÑAT AZKARGORTIA - EHKOM 8

«Arrakala digitala gaintzea da gure helburu nagusia»

«Korrontearen aurka doa Hernani Burujabe, egungo eredu individualistaren kontrakoa proposatzen dugu»

Hiru urte beteko dira urrian Hernani Burujabe proiektua aurkeztu zutenetik. Orduetik, zortzi sektoretan jarri dituzte egitasmoak martxan, eta behin oinarriak finkatuta, «puntu interesgarri batera» iritsi direla diote Itsaso Lekuona Hernaniko Udaleko zinegotziak eta Ander Larretxea Bidea Herritar Taldeko kideak.

ITSASO LEKUONA ETA ANDER LARRETXEA

Hiru urteko ibilbidea egin du Hernani Burujabek. Zein da orain arteko irakurketa?

ITSASO LEKUONA: Hasieran asmo bat besterik ez zen. Urrian beteko dira hiru urte aurkezpenetik, eta une honetan esan dezakegu errealitate bihurtu dela. Teoria eta bilerean aipatutakoak praktikara jaisteko aukera izan dugu, baina oraindik hastapenetan dago guztia. Hiru urte hauek oso aldakorak izan dira, guztiz ezberdinak elkarrengandik, eta orain puntu interesgarri batera iritsi gara. Esan dezakegu orain abiatzen dela Hernani Burujabe; egitura montatuta dago eta martxan jartzeko garaia heldu da.

ANDER LARRETXEA: Hernani Burujabe zer den azaltzeko momentuan lasaigarria da zenbait proiektu jada martxan edukitzea. Orain arte askoz ere teorikoagoa izan da guztia, eta orain errazago ikus daiteke ari dela martxa hartzen.

Asmoa da herritarren erpina izatea Hernani Burujaberen indargunea. Zein da egoera?

A. L.: Ez da lan erraza, ohitura aldaketa bat eskatzen duen erpina delako. Zortzi pertsonako talde bat ari gara lanean, ez dago gaizki, baina egoera idealetik urruti gaude oraindik. Herritarren artean ohitura aldaketa sustatzen ari gara, erpin hori proiektuaren motorra izatea nahi dugulako. Auzoetako batzarrak ere, hein batean, helburu horrekin antolatuta ditugu.

Zer moduz funtzionatzen ari dira auzo batzarrak?

A. L.: Orokorrean, ondo. Inguruan nabaritzen dugu, lehenago ez bezala, jendeak sumatzen duela erabilgarria izan daitekeela. Zenbait bizilagunek auzoetako gabeziak konpontzeko aukera bat ikusi dute Hernani Burujaben. Aurrerapausoak hor daude, baina oraindik herritarren boteretzea eman behar da. Garrantzitsua da herritarrek boteretuta egotea Hernani Burujabe tresna modura erabiltzeko.

I. L.: Herritarrek parte hartzeko guneak ireki dira, orain behar dena da horiek be-



Ander Larretxea eta Itsaso Lekuona Burujabetzen Etxeko atarian.

netan bere sentitzea eta erabiltzea.

Eragile ekonomikoek eta Hernaniko Udalak osatzen dute triangelua.

I. L.: Hori da. Hiru erpinetan antzekoa da egoera: oinarriak jarri ditugu. Ekimen ekonomiko batzuk sortuta daude, eta martxa hartzen joan behar dute orain. Oso hasieran daude, baina badaude. Udalaren kasuan ere antzekoa da egoera. Udalarik etxekolan asko egitea dagokio, egitura eta lan egiteko modua aldatzetik hasita. Hernani Burujabek lan egiteko modu batzuk aldarazi ditu, behartu gaitu beste praktika batzuk lantzerantz, baina hasi besterik ez gara egin. Gainera, oraindik muga asko dauzkagu Hernani Burujabek eskatzen duen logikari lan egin ahal izateko.

Udalaren partetik, agerikoa da apustu argi bat egin dela Hernani Burujabe proiektuaren alde. Zergatik da garrantzitsua halako egitasmo bat garatzea herrian?

I. L.: Guretzat lehengo legegintzaldi erdian abiatutako prozesua izan zen, baina oso argi geneukan legegintzaldia gainditu behar zuela. Logika aldaketa bat suposatzen du, borondate politikotik abiatzen direlako erabakiak. Berez burujabetza mahai batek hartutako erabakia ez da loteslea, baina Udalak konpromisoa hartu du aurrerapausoak ematen jarraitzeko. Hernanin bageneukan esperientzia, beste kontseilu batzuekin antzeko prozedurak jarri izan ditugu martxan, eta horrek ere laguntzen du. Erakundea transatlantiko handi bat da eta guri dagokigu eraldatzeko urratsak ematea. Dena den, sakoneko aldaketak egiteko daude oraindik.

Zer ereduren alternatiba da Hernani Burujabe? Zer da aldatu nahi dena?

A. L.: Sentsazioa da goazela galdu duguna berreskuratzea. Nahi duguna da guk edukitzea erabakitze gaitasuna edo-

zein alorretan. Egungo sisteman dagoena onartzera behartuta gaudelako.

I. L.: Aurkeztutako kanpainak ondo laburtzen du Hernani Burujaberen funtsa: negozioa bada, ez da eskubidea. Sistemak ez ditu herritarren beharrak bermatzen eta lehenesten. Merkatuaren logikatik ahalik eta gehien urrundu behar dugu, bide horretatik ez ditugulako herriarren oinarriko beharrak aseko. Hein batean, korrontearen aurka doa Hernani Burujabe; oso eredu individualista du aurrean, eta gu kontrakoa proposatzen ari gara. Sustatu den logikaren aurka aritzea eskatzen du horrek.

A. L.: Energiarena da adibide argienetako bat. Guk sortutako energiaren ehuneko jakin bat familia zaugarriei bideratzea erabaki genuen. Hori guk erabaki dugu. Konpainia handi baten esku utziko bagenu ezekoa izango zen erantzuna.

Lehentasanak finkatzeko Burujabetzen Kontseilua sortu duzue aurten.

A. L.: Bai. Aurten jarri dugu martxan Kontseilua, eta orain proba batzuk egiten ari gara.

Itsaso Lekuona: «Guretzat lehengo legegintzaldi erdian abiatutako prozesua izan zen, baina oso argi geneukan legegintzaldia gainditu behar zuela. Logika aldaketa bat suposatzen du, borondate politikotik abiatzen direlako erabakiak»

«Helburua da elikagaiak Hernanin ekoitzi, eraldatu, banatu eta kontsumitzea»

Herrilur elikadura kontsumo elkarteak orain bi urte sortu zen Hernani Burujabe egitasmoaren barruan, eta bertako produktuak Izpizua kalean dagoen denda saltzen dira. Gainera, salmenta puntu berri bat zabalduko dute Karabelekon.

OIHANA ARIZTEGI - HERRILUR

Hernani Burujabe herri proiektu bat da, herriko ehun ekonomiko, sozial eta administrazioa barnebiltzen dituen trantsizio ekosozialerako alternatiba praktikoa. Ardatz estrategikoetako bat elikadura da, eta horretarako sortu da Elikadura Sistema Iraunkor eta Burujabea. Hernaniko lehenengo sektorea sustatzea eta ekoizpena handitzea da erronka nagusia eta horretarako elkarlana, nekazari berrien formazioa eta akonpainamendua eta lur berrien eskurapena dira lan-lerro nagusiak. Produktu horiei irteera emateko Herrilur elikadura kontsumo elkarteak sortu zen, eta izen bereko denda jarri zuten martxan orain bi urte, Izpizua kaleko 13. zenbakian.

2023 urteak Herrilur dendaren kontsolidazioa ekarri zuen eta 2024an jadanik 145 bazkide dira. Eskaintzen duen produktuen aukera geroz eta handiagoa da. Elikagai horien horniduraz Hernaniko Nekazari eta Abeltzainen Sustapenerako Elkarteak (Henase) arduratzen da.

Besteak beste, nekazari eskolaren lehen edizioa izan zen 2023an. Bazterketa egoeran dauden pertsonen formakuntza eskaini zitzaion. 29 pertsonen egin zuten formakuntzaren atal bat, eta horietatik seik bukatu egin dute. Haietako lauk aurrez zehaztutako helburuak osorik bete dituzte, eta beste bik, partzialki. Bost ikasleko ordaindutako praktikak egin dituzte Henaseren etxaldeetan, eta batek lana lortu du geroztik. Beste bat Karabelekon hasi da lanean. Gainerakoek jarraitzen dute nekazaritzan eta abeltzaintzan profesionalki murgildu ahal izateko formakuntza garatzen.

Herrilurrek hiru langile ditu eta horietako bat Oihana Ariztegi da. Izpizua kaleko denda jarduten dira lanean Amaia Fernández, Ibon Zapiain eta Oihana Ariztegi bera. Gainera, bigarren denda baten irekieraren berri eman behar da, Karabelekon izango dena. «Salmenta puntu berri bat izango da», aurreratu du Oihana Ariztegi. «Karabelekok duen denda Herrilurrek kudeatuko du». Maiatza aldera aurreikusten dute martxan jartzea. «Herrilur dendan eman ezin ditugun zerbitzuak ere bertan eskainiko ditugu. Beste produktu mota bat eskaintzeko aukera dago, beti ere bertakoa, eta Karabelekon ezin gertuagokoa. Henase barruan dago eta bazkizarekin gehiago lotutako eskaintza



Herrilur denda Izpizua kalean dago eta dagoeneko 145 bazkide ditu.

izango da, landareak eta kontserbak ere ez dira faltako».

«Herrian zer produktu dauzkagun ezagutarazteko eta nekazarien produktu horiek salmenta puntu bat izan dezaten sortu zen Herrilur»

Herrilur azken hiru urteetan Hernaniko elikadura kontsumo elkarteak egin duen lanaren emaitza da. Henase elkartearkin batera, Hernaniko nekazariak eta abeltzainak osatzen dute: «Gure helburua da Hernanin bertan ekoitzi, eraldatu, banatu eta kontsumitzea. Gure denda, bertako produktuak daude eskuragai, barazki eta fruituak, kontserbak, esnekiak, haragia, ogia, gozoak, edariak eta garbiketarako produktuak, besteak beste».

Poliki, pauso garrantzitsuak eman dituzte azken bi urteetan, eta helburuetako bat proiektua herritarren artean geroz eta gehiago ezagutzea da: «Herrian zer produktu dauzkagun ezagutarazteko eta nekazarien produktu horiek salmenta puntu bat izan dezaten sortu zen Herrilur».

Ez da nolanhiko erronka aurretik dutena. Supermerkatu handiekin lehiatzea ez da erraza, baina indargune nabarmenak ditu Herrilurrek. «Saiatzen gara herritarrei ulertarazten bertako produktua osasuntsuagoa dela, eta horrek atzetik duen esanahia eta filosofia. Hernaniko nekazariak eta abeltzainak laguntzen dituz».

Jendearen egoera ekonomikoaz baliatzen dira azalera handiko supermerkatuak, euren produktuak merkeagoak balira bezala salduz. Uste horrekin amaitu nahi du

Herrilurrek. «Duela urtebete lanketa bat egin genuen prezioen alderaketa eginez, hipermerkatu haundietan aurkitu daitezkeen barazkien, fruituen prezioekin, eta ez dago apenas alderik. Gainera, produktu batzuk merkeago ditugu. Denda txikiak eta handien prezioen artean alde gutxi dago».

Hernaniko produktuetan jartzen den irabazi marjina Herrilurren txikiagoa da. «Hori nahi dugu bultzatu, bertako produktuen kontsumoa eta ekoizleak ere lagundu». Baserritik dendara dator produktua eta zuzenean kontsumitzailearengana doa, Herrilur da bitartekari bakarra. «Goizean etortzen da dendara baserritarra eta ezin baldin badu gu hurbiltzen gara baserrira».

Herrilur orain bi urte martxan jarri zenetik lan egin dute zerbitzu onena eskaintzeko, eta Oihana Ariztegi azpimarratzen duenez, lan horren emaitza hasi dira azalartzen: «Poliki doa. Ikusten dugu geroz eta jende gehiago datorrela erostera. Bezera berriak lortu ditugu, proiektuan interesa erakusten dutenak ere bai».

Horetako batzuk bazkide egin dira eta bazkide izateak dakartzan abantailen onuradun izan dira. «Proiektuan eta elkartearen parte-hartze hori da abantaila nagusia, eta hori garrantzitsua da. Dendari begira erosketak bakoitzak %5eko deskontua izaten du. Bazkide izateko kuota bat ordaindu behar da, 60 euro urtean, eta bi zatitan kobratzen dira (urtarrilaren 30ean eta uztailaren 30ean). Talde eragileko erabakiguneetan parte-hartzeak aukera dute bazkideek, eta noski Hernani Burujabe proiektuko parte ere bada».

«Proiektua sendotzen ari da, baina bi urte oraindik denbora gutxi da. Jendeari ezagutarazteko garrantzitsua da»

Proiektua herritar guztiei dago zabaldua eta gazteengana gehiago iristea da beste helburuetako bat. «Helduak etortzen dira, 30-35 urtetik gorako bezero eta bazkideak badira, eta hortik beherakoak egon arren, aurkitzea zailagoa da. Erosleak ez diren bazkideak ere baditugu, laguntza eskaintzen digutenak. Bazkide ez diren erosleak ere bai, noski».

Bi urtetan proiektua sendotze bidean dago oraindik eta erroak botatzen ari dira. «Animoak ez dira falta, zaila izaten da, baina poliki-poliki aurrera goaz. Talde eragileen artean eta langileen artean giro ona dago. Prest gaude lanean jarraitzeko».

Elikadurari dagokionean, badago sukaldaritzarekin lotuta paper garrantzitsua hartu duen egoitza: Bertatik Sukalde Zentralea. Herrilurrek Henase-ren eta Bertatik-en arteko zubi lana egiten du. Gero ere menu zerbitzuaren jasotze puntu bat Herrilur denda da. Hernani Burujabek irailan jarri zuen martxan Hernaniko Sukalde Zentralea, eta bertara eramaten dira Henaseko tokiko produktuak eta han eraldatzen dira. Sukalde zentralea, besteak beste, tuper zerbitzua eskaintzen hasi da: «Guztira, sei pertsona ari dira lanean sukalde zentralea kudeatzen duen Bertatik enpresan. Banaketa zerbitzua ere abian da, eta hor ere langile bat hasi da. Furgoneta isotermiko bat ere erosi dute, elikagai zerbitzu horretan baliatzeko».

«Energia berriztagarrien instalazio partekatuak sortu eta sare bat osatzeko lanean gabiltza»

Berrehundik gora bazkide ditu Enerhkomek une honetan, eta, besteak beste, pobrezia energetikoari aurre egiteko helburua du, «sektorerik zaugarrienak identifikatu eta lagunduz».

ENHERKOM

Herritarren bizi kalitaterako oinarritzako den energia jasotzeko eskubidea bermatu nahi du Enerhkom komunitateak, pobrezia energetikoari aurre egin eta trantsizio energetiko eta ekologiko justu bat bideratzeko. Bide horretan, Hernani Burujaberen baitan, 250 bazkide ditu dagoeneko Enerhkomek, eta hiru funtzio nagusi ditu: batetik, energia berriztagarrien instalazio partekatuak sortu eta sare bat osatzeko lanean ari da; bestetik, energiaren aholkularitzarako bulego bat martxan du, herritarrek eta enpresek alor honetan dituzten zalantzei eta galderei erantzuteko, beti ere eraginkortasun energetikoa hobetu eta energia kontsumoa murrizteko xedearekin; eta azkenik, pobrezia energetikoari aurre egiteko helburua du, sektorerik zaugarrienak identifikatu eta haiei laguntzeko.

Herritarrek Enerhkom egiten ari denaz jabetzeko, komunitateko kideek eskuartearen dituzten proiektuen nondik norakoak eman dituzte.

Energia plakak jarri zenituzten Zubipen. 87 etxebizitzetara iristen da plaka horien energia. Proiektua nondik hasi zen? Zeintzuk ziren zuen helburuak?

Enherkomek zenbait helburu ditu, eta helburu horien baitan xede nagusia da burujabetza energetikoaren esparrua Hernanira ekartzea. Helburua ez da instalazio berriztagarriak jartzeko, baizik eta instalazioa erreminta bat dela ulertzea. Lortu nahi dugu burujabetza energetikoa, energiaren inguruko kontsumo arduratsu bat izatea, eta hori dena lortzeko instalazio berriztagarriak erabiltzen ditugu erreminta gisa. Adibidez, ez dauka zentzurik Zubipeko plaka horien energia erabiliiko dutenek energia kontsumoa handitzea. Ideia-lana izango litzateke energiaren onuradun diren horiek kontziente izatea zenbat ari diren gastatzen, zeintzuk diren gure kontsumo ohiturak eta horiek aldatzea. Horretarako energia berriztagarrien instalazioak beharrezkoak dira, baina nagusiki aipatutako helburua lortzeko. Euskal Herri osoan zehar plakak jarrita, gure kontsumo ohituretan ez badago aldaketarik, ez dugu hobekuntzarik egingo.

Prozesuari dagokionez, Udalaren erailkin bat dela kontutan hartuta, hitzarmen bat sinatu dugu, eta bertan, Zubipeko



Enherkomek autokontsumo partekaturako lehen instalakuntza izan da Zubipekoa.

erailkinaren erabilerearen lagapena jasotzen da. Plaken instalakuntza, aldiz, Enherkomeko bazkideena da. Proiektuarekin hasi ginenean, zoritxarrez, bidean oztopoak jarri zizkiguten; esaterako, proiektatuta geneukan instalakuntza guk nahi baino txikiagoa egin behar izan genuen. Sarearen jabea denak, hau da, Iberdrolak, esan zigun sare ez zegoela egokitu guk nahi genuen instalazio handia egiteko. Iberdrolak eskatzen zizkigun instalakuntza egiteko baldintza eta betebeharrak batzuk, eta guretzat ez zen bideragarria ekonomikoki. Beraz, planeatutakoa baino txikiagoa egin genuen.

Instalakuntza egiterako garaian, guretzat oso garrantzitsua da zeinek egiten duen kontutan hartzea. Izan ere, Enherkomek helburuetako bat da instalazio edota ekintzak herri mailan eta herritarrek egitea. Horregatik, instalazioa egiteko langileak azpikontratatu genituen irizpide batzuen baitan; Hernanikoa izatea eta proiektua euskaraz aurkeztea, esaterako.

Esan daiteke, beraz, irizpide sozialak dituzela lan egiterako garaian.

Bai, hala da. Lan egingo dutenekin pertsonak kontratatzeke zein onuraduna nor izango den erabakitzeke erabiltzen ditugu irizpide horiek.

Aipatu duzun azken esaldiari tiraka, energiaren %20-25 egoera zaugarrian dauden familiei bideratzen diozue, ezta?

Hori da. Egia da ez daukagula baliabiderik jakiteko zenbat familia bizi diren Hernanin egoera zaugarrian. Baina, oraingoz, Enherkomeko energiaren onuradunak dira, adibidez, etxebizitzia sozialetan bizi diren herritarrek, edo AMHER elkarteak kide diren herritar batzuk.

Iberdrola bezalako beste enpresa

handien kompetentzian sartu zarete. Zein da Enherkomek postura? Zer suposatzen du honek?

Gure postura argia da: burujabetzen espiritua. Gaur egun, energiarekin lotutako erabakiak herritarrengandik oso urrun daude, eta hor dago Enherkomek paper garrantzitsua: hernaniarriro eragiten diguten erabaki horiek geroz eta gertuago egiteko ahalegina egitea.

Energiaren mundu honetan, merkatu elektrikoa ez dago prestatuta gu bezalako proiektuak aurrera ateratzeko. Teknikoki eta burokratiko guk nahi baino gehiago luzatu da, adibidez, Zubipeko instalazioa. Azkenean, ez da bakarrik plakak instalatzea, tramitazio burokratiko handia dago horren atzean, eta horrek asko moteltzen du prozesua. Esan bezala, gaur egungo merkatu elektrikoa ez dago prestatua Enherkom bezalako proiektuak aurrera eramateko.

Energia bulegoa ireki zenuten 2022an. Aholkularitza horretan, zeintzuk dira herritarren beharrak? Zertan laguntzen duzue?

Ireki genuenetik ia izko apirilera arte datu batzuk atera ditugu. Guztira, data horietan 500 kontsulta jaso ditugu. Azkenean, energia bulegoa irekita dago energiari lotutako edozein galdera edota zalantza erantzuteko; izan instalazioak, izan etxeko eraginkortasuna. Baina errealitatea izan da herritarren ehuneko handi bat (%90 inguru) etorri dela fakturekin galduta, edota hauei buruzko informazioa bila. Guretzat garrantzitsua da faktura hauei irtenbide bat ematea, esan nahi dut, gutxiago ordaintzea. Baina, horrez gain, gure xedea da herritarrek ateratzea bulegotik ahaldunduta, energiaren inguruko oinarritzako kontzeptuak jakinda. Gerora begira ere baliagarria izateko energia bulegora etorri izana.

Herritarren beharrak aseta

orduan? Ematen duzuen zerbitzuarekin pozik daude?

Bai, esango genuke baietz. Azkenean, Enherkomek behar bat ikusi zuen, eta Udalarekin kontrastatu zuen. Une honetan, herritarren beharrak asetzeko energia bulegoa ireki genuen. Uste dut oso harrera ona izan duela.

Era berean, bulegoarekin lotuta, datu interesgarria iruditzen zaigu aipatzea emakume gehiago etorri direla gizonetako baino. Kontrastea dago, izan ere, datuei erreparatu badiugu, Enherkomek gizonetako ari gara lanean, horrelako lan teknikoak gehiago daudelako lotuta gizonetakoekin. Baina etxeko fakturak zaintzarekin lotura dutenez, emakume gehiago etortzen dira energia bulegora.

Horrez gain, identifikatu dugu energia bulegora etortzen diren %80a 45 urte-rik gorako herritarrek direla. Eta horregatik, gazteei gonbitea egin nahi diegu energia bulegora etortzeko edozein zalantza argitzera. Ez da fakturen inguruko aholkuak ematen dituen bulegoa bakarrik, energiaren inguruko edozein kontsulta egiteko etorri daitezke.

Une honetan zertan zabilzate? Epe laburrera begira, proiekturen bat eskuartearen?

Dagoeneko beste instalakuntza bat daukagu eginda, kasu honetan, enpresa pribatuaren teilatuetan. Azkenean, Enherkomek helburua da, instalazio fotoboltaikoei dagokionez, Hernaniko teilatu gehienak modu komunitarioan ekoiztea. Horregatik, dei egiten diegu enpresei Enherkomekin kontaktuan jartzeko, modu komunitarioan lanketa bat egin dezaten.

Enpresez gain, noski, herritarrentzat beti daukagu atea irekita, eta bazkide egiteko aukera ere badagoela gogorazi nahi dugu, 10 euroko ekarpen sinbolikoarekin. Beraz, herritarrei dei egiten diegu Enherkomek atea jotzeko.



Alex Lopez Ekhillurren aurkezpen prentsaurrekoan.

«Udalaren ekarpena jaitsita diru gehiago mugituko dugu aurten»

«Espero gabeko gorakada» izan du Ekhillur kooperatibak eta Ekhi monetaren erabilerak. Alex Lopez kooperatibako kideak zehaztu du erritmo onean jarraitzen duela bazkideak, eta «hazten jarraitzea» da orain helburua.

ALEX LOPEZ - EKHILUR

«Sistema kapitalistako elementu zentralitateko bat da dirua, eta gure zirkuituan ezagurri jakin batzuk ematen dizkiogu. Guk jartzen ditugu nahi ditugun baldintzak». Horrela azaltzen du Alex Lopez Ekhillur kooperatibako kideak Ekhi monetaren funtzioa. 2022an martxan jarri zenetik gorakada nabarmena izan du monetaren erabilzaile kopuruak, eta gaur egun erabilzaileen %40a da kooperatibako bazkide: «Erabilzaileen aldetik espero genuen graduala izango zela bazkidezarena. Ez dugu kanpainarik egin, baina aukera ahalbidedu orduko 300 bazkideren langa gainditu genuen», azaldu du Lopezek.

Datuei erreparatuta, goranzko joeran jarraitzen du Ekhillurrek. 2023ko memorian azaldu zuten 1,85 milioi euroko salmenta bolumena lortu zuela kooperatibak; aurtengo aurreikuspena, ordea, handiagoa da: «Hernaniko Udalak ia baino %16 gutxiago jarriko du, eta %35 gehiago mugituko da». Izan ere, 2.500.000 euroko salmenta bolumena eta 100.000 operazio baino gehiago izango direla pentsatzen dute. «Herriko ekonomian sistema garrantzitsu bat bihurtzeko pausoak ematen ari gara. Zirkuitu ekonomiko bat osatu dugu Ekhiarekin», gehitu du Lopezek.

Hobariak izan dira arrakastaren gakoetako bat

Ekhia erabilteagatik hobariak eskaintzen hasi ziren iaz, eta aurten jarraipena izan du bonifikazio sistema horrek. Alabaina, 2024a hastearrekin batera, hobari horiek komertzioek eskaintzeko proposamena egin zien Ekhillurrek Hernaniko merkatariei, Udalaren ekarpena murrizteko asmoz. Establezimenduen %97ak onartu zuen proposamena, eta Hernaniko 91 komer-

tziotan daude %5 eta %15 arteko hobariak: «Kontsumitzeko ohiturak aldatzea oso zaila da inzentiborik jarri ezean. Badakigu jende asko hobariengatik hurbildu dela gugana, baina, era berean, ikusten dugu jendearen ohiturak ere aldatzen ari direla», azaldu du Lopezek.

Dena den, Ekhillurretik garrantzi handia ematen diote Ekhiaren alderdi sozialari. Horregatik, Lopezek adierazi du kanpaina bat jarriko dutela martxan proiektuaren ideologia eta asmoak ezagutarazteko: «Hasiera batean onura ekonomikoa duela sartzen da jendea horrelako gauzetan, baina onura bestelakoa ere izan daiteke; etikoa edo soziala, adibidez».

Hazten jarraitzea helburu

Hemendik aurrera aurrerapausoak ematen jarraitzea da Ekhillurren helburua. Lopezek azaldu du zirkuitu ekonomikoaren lanketarekin aritu direla orain arte, baina asmoa da zirkuitu finantzieroa ere gartzea: «Masa finantzieroa zati bat, beti kontrolpeko arriskuan, Hernaniko proiektuetan berrinbertitzea da asmoa. Hau da, aberastasun hori herrian mantentzea eta horren zati batekin bertako proiektuak finantzatzea».

Hernani Burujabe proiektuaren barruan ere helburuak finkatu ditu Ekhillurrek; hala nola, «Udalaren aportazioa jaisten joatea, Udala sistemaren barruan integratzea eta Hernani Burujabe beste proiektuekin lankidetzara bide berriak sortzea». Azken puntu horretan lanean aritu da Ekhillur, Herriurrekin eta Henaserekin gehienbat.

Lopezek nabarmendu du Hernanin gartzen ari diren zirkuitua Euskal Herria zabaltzea izango litzatekeela ideala: «Pikxakana herri mailan hedatzea da asmoa, gero probintzia mailara eta ondoren erkidegoetara. Behetik gorako erainkuntza izango da».



Sagarretako kideak Erribera txiki inguruan egindako zuhaitz landaketan.

«Interesatzen zaigu herritarren kontzientzia piztea»

Sagarreta Natur Taldeak bi urte daramatza lanean, eta bioaniztasunarekin lotutako proiektu ugari jarri dituzte martxan.

IXIAR MINER, IÑAKI GURRUTXAGA ETA ESTEBAN GARMENDIA - SAGARRETA

Nola azalduko zenukete zer den Sagarreta zuen hitzetan?

Natur talde bat gara. Duela pare bat urte hasi ginen elkartzen interes edo kezka berdintsuak genituen pertsonak, eta pixkanaka elkarte bat sortu dugu. Garai hartan Hernanin eta Ereñotzun bi talde sortzen ari ziren, baina ikusi genuen balarako ikuspegia eman behar geniola, eta elkartzea erabaki genuen. Hasiera batean basoen egoera eta kudeaketari lotutako taldea zen, baina taldearekin kolaboratzen duen biologo batek gomendatu zigun helburua pixka bat zabaltzea. Orduantxe hasi ginen natura eta bioaniztasuna helburu modura aintzat hartzen. Bioaniztasunaz harago, azpiegitura handien auzia ere lantzen dugu, horiek sekulako eragina izan dezaketelako ekosisteman.

Zeintzuk dira bailaran dauzkagun arazo nagusiak?

Basogintza politika da bat. Monolaborantza egiten ari dira, batez ere eukaliptoarena. Arrisku handia du horrek, zuhaitz horiek inbaditzaileak direlako, eta bertako ekosisteman sekulako kalteak sortzen dituztelako. Gainera, zuhaitz horien mozetak oso era bortitzean egiten dituzte, eta mendian sortzen duen inpaktua nabarmena izaten da. Ibaiarekin lotuta, eguneroan ikusten dugu zein egoeratan dauden ibai ertzak; oso esplotatuta eta erabilia daude, eta ibaiak berak presio handia dauka. Horri gehitu behar zaio kutsadura, plastikoak, landare inbaditzaileak... Arazo asko pilatzen dira bertan. Hori naturako elementuekin lotuta. Horrez gain, makroproiektuen arazoa daukagu. Parke eoliko bat egiten denean, esaterako, dimentsioaren eta kokapenaren arabera sekulako eragin negatiboa sortu dezake inguruan.

Sagarretatik garrantzi handia eman diozue kontzientziazioari.

Hori da. Alderdi pedagogikoa lantzen ari gara. Herritarrekin eta herriko eskolekin elkarlanean aritu gara, eta asko interesatzen zaigu jendearren kontzientzia piztea.

Eskolekin lanketarako egin izan dituzue, ezta?

Daukagun proiektuetako bat da, bai. Hernaniko eskola guztietako ikasleak etorri ziren Burujabetzen Etxera, eta alderdi praktikoa zein teorikoa landu genituen. Hazitegian aritu ziren ikasleak, eta denbora baliatu genuen gure kezkek helarazteko. Asmoa da hemen dauzkagun hazi horiek zaindu eta gerora basoan landatzeko aukera izatea.

Gainontzean, zer proiektu daukazue martxan?

Esan dugun modura, Iturrolan bertan mintegi bat sortu dugu. Oso urbanoa da, baina aldi berean osoa zaintzeko. Hazi mintegia sortzeko auzolanean egin ditugu prestaketa lanak, eta 3.000 hazi inguru landatu ditugu; horietako gehienak harritz kandugabearenak (Quercus petraea). Hernanin galtzeare dagoen espeziea da, eta helburua da, dena ondo badao, herriarekin eta ikasleekin batera mendian landatzea. Ibaieren kasuan, urtero erreka garbiketarako egiten ditugu, eta horrekin jarraitzeko asmoa daukagu. Jarduera horrek, besteak beste, Erribera txiki deitzen diogun eremu bat ezagutzeko aukera eman digu. Floridako zubiaren azpialdean dagoen eremua da, eta bertan beste zenbait lanketa egin ditugu dagoeneko.

Horiek dira martxan dauzkagun proiektuetako batzuk, eta beste zenbait hemendik gutxira jarriko ditugu martxan. Horrez gain, aipatutako gai guztiak lantzen ditugu hitzaldien eta informazio saioen bidez.

Bioaniztasunaren arazoa ez da Hernanira mugatzen. Inguruko elkarteekin elkarlanean zabilazte?

Bai. Sare bat daukagu Baso Biziaik izeneko. Gure modura bioaniztasunarekin lotutako gai guztiak hartzen dituzte kontuan. Badakigu ingurumena ez dela konpartimendu estankoa, dena dagoelako erlazionatua. Inguruko beste talde batek zer bait antolatzen badu, direla taldeko kideak joaten dira ikastera. Esperientziak elkarbanatzen ari gara elkarrengandik ikasteko.

«Etxebizitzaren arazoa transbertsala da eta eskuhartze integrala behar da»

Etxegura elkarte sortu berriak diotenez «merkatu logikatik atera behar du etxebizitzak».

TXARO UNZILLA ETA
GORKA NAVARRO - ETXEGURA

Hernani Burujabe proiektuaren barruan etxebizitza da beste esparrua. Lanketa hasi dira egiten, sensibilizazio berezia sortzen duen gai honetan. Eskumen falta eta legediak ez ditu herritarrak gelditu eta Etxebizitza Mahaia sortu dute.

Hernani Burujabe sortu zenean etxebizitza burujabe baten beharra ikusi zen. Gai potoloa eta zaila denez bilera asko eta asko egin dituzte bi urtetan zehar. Biterin biltzen dira hilabetean bi aldiz. Txaro Untzilla hasieratik izan da proiektuan eta ongi ezagutzen du egin duten ibilbidea. «Gaia korapilatsua izaki, hasieratik bildu gara Stop Desahucios, Amher eta jubilatuen ordezkariak, baita norbanakoak ere. Irekita gaude jende gehiagok parte hartzera, batez ere gazteak. Gai oso sentiblea eta garrantzitsua da. Gainera lan polita egiten ari gara».

Helburuen artean daude «diagnosiak eta promosamenak egin, proiektuak gauzatu, planifikatu eta salaketak aldarrikatzea», Gorka Navarrok aipatzen duenez. «Oraindik konkretatzeko dago, baina hori izango litzateke ortzimuga».

Hernanin Etxebizitza bulego bat zabalitzeko asmotan dabilta, ekturkura bat izateko eta horretarako «pauso garrantzitsu bat izan da aurten, Etxegura elkarte sortzea. Helburua da elkarteak Udalarekin hitzarmen bat lortzea, eta besteak beste, aipatu ditugun asmo eta helburu horiek elkartean zabalitzea», dio Untzillak.

Bulegoak ez du izango funtzio klasikoak. Gorka Navarrok Hernani Burujaberaren filosofiaren barruan kokatzen du. «Herritarrek parte hartu ahal izango dute bulego

horretan. Herritarren beharra detektatzea oso garrantzitsua da. Espazio seguru bat izango da, hau da, sektore zaugarrienak babestuak izango dira. Abusuak detektatu eta salatuko dira. Pertsona ahulei laguntza emango zaie eta beti erreibindikatuz espazio bat izan beharko luke».

'Etxebizitza eskubidea da' lema nagusia Txaro Untzillaren hitzetan. «Hori bermatzen saiatuko gara zaila izan arren. Horretarako, egin dugu kanpaina bat etxe hutsak detektatzeko eta ezagutarazteko».

Ildo horretatik tiraka Etxegurako kideek azpimarratu nahi dute etxebizitzaren arazoa «transbertsala» dela. «Ertz asko ditu. Eskuhartze integral bat behar da. Toki ezberdinetatik heldu behar zaio eskubide subjektibo bat den heinean. Merkatu logikatik atera behar da, jakinda hori lortzea oso zaila dela. Hala ere, indartsu gaude eta lanean hasteko prest, behin elkartea eratu dugun unetik».

Kontzientziazio eta sensibilizazio lana ere beharrezkoa da eta horretan azpimarra jarri nahi dute Etxegurakoek. «Instituzioek ardura badute noski, baina norbanakoek ere badugu. Alokaten denean etxebizitza bat 1.200 eurorengatik arazoan bere ardura eta erantzukizuna du. Alokatzera animatu behar ditugu jabeak, denok daukagu ardura».

Eskuhartze integral horretan, Udalek eta norbanakoek askotan ezin dute gauza askorik egin, eskumenak ez dituztelako. «Baina erreibindikatu ditzakegu helburuak. Adibidez etxe zaharrak birgaitzea, alokairu sozialeko etxebizitzaren parke publiko handitzea, alokairuan etxebizitza gehiago jartzea... alokairuarekin arazo potentea dago. Bi gauza lotzen dira, bat da ia ez daudela, eta gero zer prezioetan dauden gutxi edo bakan horiek».



Ibon Txoperena eta Beñat Azkargorta, EHKOMeko kideak.

«Arrakala digitala gainditzea da gure helburu nagusia»

Horretarako zenbait proiektu ditu eskuartean EHKOM kooperatibak; besteak beste, alde zaharrean zuntz optikoa jartzea.

IBON TXOPERENA ETA
BEÑAT AZKARGORTA - EHKOM

«Euskal Herriko telekomunikazioetako erpadore publiko komunitario batean oinarritutako kooperatiba integrala da EHKOM». Hala azaldu dute kooperatibako kide diren Ibon Txoperenak eta Beñat Azkargortak: «azpiegiturak hedatzeko lanean ari gara udalarekin elkarlanean, telekomunikazio burujabetzaren bidean».

Telekomunikazioan aditua den kooperatibak argi du zein den helburu nagusia: arrakala digitala gainditzea, hau da, Internet konexio txarra duten auzo edo eremuak konexio egokia izan dezaten baliabideez hornitzea. Horretarako, Txoperenak azaldu du zuntz optikoa jarri ahal izateko proiektuak gauzatzen dituztela, sarea behar duten eremuetan: «orain zabaltzen ari gara zuntz optikoa alde zaharrean, eta irrati bidezko azpiegiturak hainbat auzotan, Santa Barbarako antena erabiliz. Azpiegitura horien jabetza

publiko edo publiko-komunitarioa izanik ere, edozein operadorek erabili ahal izango ditu». Izan ere, EHKOMen ustez, telekomunikaziorako sarbidea oinarritzko eskubide bat da, baina gaur egungo errealitateak eskubide horiekin talka egiten duela dio Azkargortak: «uste dugu denok izan beharko genukeela aukera hori. Gaur egun ordea, oraindik ez da ematen, eta arrazoia da, telekomunikazioen merkatu honetan, oligopolio egoera bat dagoela. Izan ere, Espainiar estatuan, lau multinazionalak kontrolatzen dute merkatu guztia. Hauek jarduten dute errentagarritasunaren arabera, hau da, errentagarriak ez diren gunek alde batera uzten dituzte, eta Euskal Herrian baserri eta auzo asko daude erdigunetik kanpo».

«Telekomunikazioak gaur egun beharrezko tresna» direla abiapuntu hartuta, hemendik aurrera emango dituzten urratsak zeintzuk diren elkarbanatu dute EHKOMeko kideek: «Orain alde zaharreko bigarren fasean zentratuko gara, zuntz optikoa bermatzeko. Modu honetara alde zaharreko bizilagunek sarera sarbidea izango dute. Era berean, Hernani Burujaberaren baitan, gure asmoa da Hernaniko auzo gehiagotara heltzea eta diagnostiko bat egitea. Modu honetara, beharrik identifikatuko ditugu eta hauek asetzeko ahalegina egingo dugu».



Ez galdu Hernani Burujaben gertatzen denaren berri izateko aukera.

Batu gure Telegram kanalera!

 t.me/HernaniBurujabe

 Edo sartu gure webgunean! www.hernaniburujabe.eus

